



Euskara eta nazioarteko adituak

Ikerketa linguistikoak eta soziolinguistikoak egiten diren euskararen gaiak nazioarteko adituen interesa piztu du beti. Baditugu Louis Lucien Bonaparteren lanak, W. von Humboldtenak, bi horiek ezagunenak izanik noski; baina nazioarteko beste famatu anitzek aztertu dute euskararen kasua, besteak beste W. J. Van Eys, H. Schuchardt edo Uhlenbeck-ek. Gugandik gertuago, beharbada ospe handiena lortu duten adituen artean, Joshua A. Fishman dugu. Aditu horrek atal oso bat eskaini zien euskara eta frasierari *Reversing Language Shift* (1991) bere liburu beharbada garrantzitsuean. Geroztik, gainera, Fishman behin baino gehiagotan egon da Euskal Herrian, eta nazioarte mailan soziolinguistikan oso famatua den *International Journal of Language Sociology* aldizkariaren zenbaki oso bat eskaini zion euskarari, 174. zenbakia hain zuzen ere, 2005ean argitaratu zena ondorengo izenburuarekin: «The Case of Basque: From the Past toward the Future».

Interes horretan ezkorrenak eten bat gertatzen ari dela esango dute, baina kontrakoa gertatzen ari da. Azken aldi honetan Euskal Herria nazioarteko aditu garrantzitsuenen bisita jasotzen ari da. Hori bai, askotan adituak ez dira etortzen berez euskararekiko duten interesagatik, baizik eta eskaera zehatz bati erantzuteko. Normalean proiektu batean parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaie eta askotan gonbidapena onartzen dute, eta hori oso ona da euskararentzat eta Euskal Herriko soziolinguistikarentzat. Hemengo ezagutza kanpotik elikatzea ezinbestekoa baita alde batetik, eta, bestetik, onarpenak jasotzen baditugu nazioarte mailan euskararen inguruko interesak bizirik dirauela esan nahi baitu.

Adibide asko eman daitezke; esaterako, 2006ko abenduan, Antoni Milian, Ignasi Vila, François Grin, Josiane Hamers eta Hugo Baetens-Beardsmore modu horretan etorri ziren hezkuntza ereduak aztertzerara. Aurten, urriaren 15ean eta 16an, Björn Jernudd, Bernard Spolsky eta Colin Williams-en bisita ere izan dugu Euskaltzaindiak gonbidaturik.

Euskal Herrira etortzen ari diren adituak nazioarteko soziolinguistikaren izen handienak dira. *Salsa rosa* bezalako teleaioak emendatzen ari direnean, Euskal Herrira pertsona famatuak ekartzeak ez du zertan ona izan behar, esango didazue; baina kasu honetan ezberdina da noski, ez dira ize-nagatik famatuak, baizik eta haien ikerketen eraginkortasun eta interes intelektuala beste inorena baino altuagoa eta ja-soagoa delako.

Hizkuntzaren iraultza

Orain dela gutxi, irailaren 24an hain zuzen ere, David Crystal ere Euskal Herriko alfonbra gorritik pasatu zen. Richard Gerek Donostiako Zinemaldian adina jende ez zuen bildu Crystalek, baina bere hitzak oso interesgarriak izan ziren eta bere hitzaldia oso argia.

Crystal Unesco Etxeak gonbidaturik etorri zen bere *The Language Revolution* liburuaren euskarazko itzulpenaren aurkezpena egiteko eta, bide batez, hitzaldi interesgarri bat eskaintzeko. Hitzaldiaren izenburua gogoeta eragiteko egokia zen eta baita kuriositatea pizteko modukoa ere: «Zer egin hizkuntza gutxituek biziraun dezaten». Horrelako izenburu batekin hizkuntzak berpizteko formula magikoa aurkituta zegoela ematen zuen, eta salbazioa lortzeko balioko zuen dekalogo entzutera joan ginen batzuk.

Umorea badirudi ere, alde aurretik susmatzen genuen dekalogo bat entzutera gindoazela; izan ere, liburuaren ingelesezko jatorrizko bertsioa irakurrita genuen eta bertan liburuaren bukaeran hizkuntza gutxituek bizirauteko Crystalek proposatzen dituen hamar manamenduak agertzen

baitira. Eskertzekoa da Crystalen argitasuna proposamenak egiterakoan. Izan ere, gehienetan soziolinguisten ikerketa teorikoek praxiarekin lotura gutxi dute, eta ez da oso ondo ikusten haien proposamenak, egiten badituzte, nola aplikatu ahal diren eguneroko bizitzan eta gure ingurune hurbilean. Teoriak politak izaten dira, baina haien geroko aplikazioan huts nabarmena egiten dugu askotan. Crystalen kasuan ez da hori gertatzen; eta manamenduak ez badira noski hitzez hitz aplikatu behar ere, egoera bakoitzari egokitu behar zaizkiolako, oso argiak eta esanguratsuak dira.

Bere hitzaldiaren hasieran munduko eleaniztasunari buruzko datu orokor batzuk gogorarazi zizkigun Crystal jaunak. Horrela, denok hizkuntza gutxitu bat erabiltzen dugula gogorarazi zigun, munduko hiztunen %96k hizkuntza gutxitu bat erabiltzen baitu. Crystalen arabera, euskara, munduko beste hizkuntzen egoerarekin alderatuta, leku onean dago, egoera hobea duten %10 hizkuntzen artean hain zuzen ere, eta horregatik euskararen hiztun komunitateak harro egon beharko luke bere hizkuntza noraino eraman duen ikusita.

Dekalogoia hasi aurretik Crystalek hiru nahitaezko baldintza zehaztu zituen hizkuntza gutxitu batek bizirauteko. Hasteko, gizarte xeheak hizkuntzaren iraupenaren alde egon behar du (*bottom up interest*, behetik gorako interesa). Bigarren baldintza kontrako bidekoa da, goitik beherakoa alegia. Hori da, gobernuek eta administrazioek ere hizkuntzaren iraupenaren alde egon behar dute. Eta hirugarren ezinbesteko baldintza, Ipar Amerikako bibliografian bereziki agertzen dena, baldintza ekonomikoa da. Alegia, hizkuntzak iraun dezan dirua behar da, hizkuntz politika martxan jartzeko eta plangintza eraginkorra izateko.

Hemen Crystalen gomendioen laburpena egingo dugu; dena den, xehetasunak izateko eta Crystalen ideien nondik norakoak hobeto ulertzeko, bere *Hizkuntzaren iraultza* irakurtzea izango da, noski, hoberena (Erein, 2007).

Hizkuntza gutxituen iraupena hizkuntz ekologiaren ikuspuntutik planteatzen du Crystalek, eta horregatik bere le-

henengo gomendioa jende eta gizarte guztiari hizkuntza guztien garrantziaz ohartaraztea da.

Bigarren gomendioa hizkuntza idaztea da, alegia hizkuntzaren estandarizazioa.

Hirugarren manamendua hizkuntzaren instituzionalizazioa da, alegia gobernuan, zuzenbidean, elizan e.a. erabiltzea.

Laugarren gomendioa hizkuntzaren presentzia publikoa da. Alegia, hizkuntzak presente egon behar du hedabide guztietan (internet, irratia, telebista e.a.).

Bosgarren aholkua eskusiboa ez izatea da, alegia ahalik eta jende eta iritzi gehien biltzea inor kanporatu gabe edo kanpoan utzi gabe. Gainera, autoreak esaten duen moduan, munduko eleaniztasuna aberasgarria bada aniztasun kulturala suposatzen duelako da.

Seigarren aholkua errealista izatea da, etsipena ez bultzatzeko helburuek errealistak izan behar baitute.

Zazpi: munduko hiztunen hiru laurdenak eleanitzak dira; beraz, onartu behar da hizkuntzaren ezagutzan maila asko daudela.

Zortzigarren gomendioa hizkuntzaren aspektu guztiak haien artean lotzea da.

Bederatzigarrena: hizkuntzari eta eleaniztasunari publizitate egiteko baliagarriak izan daitezkeen sare guztiak erabiltzea.

Bukatzeko, hamargarren gomendioa bakoitzaren kasu pertsonala baino gorago begiratzea da; alegia, helburua ez du izan behar tokian tokiko elebitasunak, baizik eta munduko eleaniztasunak.

Psikologiaren ekarpen bat

Azken hilabete horietan nazioarteko hizkuntzalarien bisita anitz jaso ditugu Euskal Herrira, artikulu honen hasieran aipatu dudan bezala; ekainean, Claude Hagège-ren bisitaz disfrutatu ahal izan genuen Saran, adibidez. Crystal bezala, bera ere *Halte à la mort des langues* liburuarekin eleanizta-

sunaren alde agertzen da. Beste modu batean, Louis-Jean Calvet ere, *Pour une écologie des langues du monde* liburua- rekin, eta bere hitzek azken aldian eztabaida dezente piztu duten arren, munduko hizkuntzen kudeaketa ekologiko ba- ten alde agertzen zaigu.

Hego Euskal Herriari dagokionez, EMUNen urteurrena ze- la-eta, P. MacIntyre psikologoa gonbidatu zuten «Motibazioa eta hizkuntza normalizazioa» jardunaldietan parte hartzeko. Euskal Herritik kanpokoa den Ferrán Suay-k ere parte hartu zuen jardunaldi horietan. Ez naiz luzatuko hemen jardunaldi horien emankortasunari buruz, artikulua- ren mugek ez dida- telako aukerarik ematen alde batetik, eta bestetik eta berezi- ki parte hartzeko aukerarik izan ez nuelako. Dena den, inte- resa duenak jardunaldien inguruko informazio osoa aurki- tuko du EMUNen web orrialdean (www.emun.com).

Euskal Herriko V. Euskararen Kale Neurketa

Euskal Herriko soziolinguistikari buruzko berriak aipa- tzean, ezin dugu artikulua hau bukatu Euskal Herriko V. Ka- le Neurketari buruzko berririk eman gabe. Izan ere, Sozio- linguistika Klusterrak 2006an Euskal Herriko V. Euskararen Kale Neurketa orokorra burutu zuen, eta azaroan kaleratu- ko den *Bat* soziolinguistika aldizkarian emaitza guztien be- rri izango dugu. Gainera, emaitza guztiak aditu ezagun as- koren irakurketapean.

Irakurleak jakingo duenez, euskararen kale neurketak bost urtetik behin egiten dira Euskal Herri mailan, eta oso datu garrantzitsua da euskararen bizitasunaren bilakaera hobeto ezagutzeko. Izan ere, Soziolinguistika Klusterrak burutzen duen ikerketa horrek berebiziko garrantzia du, batez ere ja- sotzen diren datuak ez direlako aitortuak, behatuak baizik. Alegia, inkestatuak ez du adierazten bere hizkuntz ohiturak zeintzuk diren, inkesta arruntetan edo erroldetan bezala. Ez, datuak behatuak dira, hau da, kolean euskara zenbat erabiltzen den jasotzen da.

Hori oso garrantzitsua da. Izan ere, askotan neurtzailearen presentziak eragina izaten du jasotzen diren datuetan (Labov-ek neurtzailearen paradoxa deitu zuena); gainera, askotan inkestatuak ez du egiten duena adierazten, baizik eta egin nahiko lukeena. Beste faktore bat errepresentazioak dira; alegia, inkesta bati erantzuten diogunean gure eginkizunei eta pentsamenduei buruzko iritziak ematen ditugu, eta irudipenak baino ez dira. Hau da, zer pentsatzen dugun eta normalean zer egiten dugun galdetzen badigute, maila teoriko batean jartzen gara eta normalean ez dugu benetan egiten duguna adierazten.

2006ko euskararen kale neurketan aldaketa batzuk egin dira ikerketaren metodologian, eta orain, euskararen, frantsesaren eta gaztelaniaren erabilera mailak ezagutu ez ezik, kanpoko hizkuntzak ere zenbat erabiltzen diren neurtu da.

Kale neurketen datuak 1989tik ditugu. Beraz, euskararen berrindartze prozesuari buruzko gogoeta sakon bat egiteko balio ahal izango digute. Hizkuntzen inguruan orain arte burututako lanaren eragina ebaluatzeko eta datozen urteetan aurreikuspenak egiteko balioko digute. Hizkuntz plan-gintzaren lorpenak eta indar soziolinguistiko berriak ezagutzeko, alegia.

Edo, hobeto esanda, euskararen egoeraren berri emango digu ikerketa horrek, argazki huts eta hotz bat balitz bezala. Alegia aldaketak zergatik gertatzen diren ez dugu jakingo, baina euskararen alde zer egiten den eta zer ez den egiten gutxi gorabehera badakigu denok. Beraz, euskararen erabilerari dagozkion datu batzuk aurreikusi ahal ziren, bereziki euskararen ezagutzaren datuen bilakaera ikusita. Erabilera-aren datuak aurreikusitakoak baino apalagoak badira, plan-gintzaren eraginkortasunari buruzko gogoeta batzuk egin beharko ditugu eta, bereziki, indar soziolinguistiko berriak zeintzuk diren identifikatu beharko ditugu... Pentsatzeko gonbita luzatuta dago, beraz...¶